

Donostian, 2004.eko urriaren 29an.

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,
Andres Urrutia, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Txomin Peillen,
Ibon Sarasola
Piarres Xarritton
eta Patxi Zabaleta euskaltzainak,

Juan Jose Zearreta, kudeatzailea eta Pello Telleria, idazkariordea, zegozkien gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Antonio Arana Martijak, ahala X. Kintanari; M. Azkaratek, ahala P. Goenagari; Patxi Ondarrak, ahala A. Iñigori, eta Pello Salaburuk, ahala J. Haritschelharri.

Batzarra goizeko 10,20an hasi da Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: oharrik gabe onartu da.

2. Azken ordukoak: Ohiko gai akademikoekin hasi baino lehenago, ondoko gaiok ukitu dira:

2.1. Euskaltzainburuari agurra: Oraingo bilkuran J. Haritschelharrek, euskaltzainburu gisa, Gipuzkoako jauregian egiten duen azken agerraldia dela eta, diputazio-buruak euskaltzainak bazkaltzera gonbidatu ditu, bide batez, euskaltzainburuari agur egiteko.

2.2. Martin Ugalderen heriotza. Martin Ugalde ohorezko euskaltzaina urriaren 4an hil zela eta, beronen hilberri txostena egitea J. M. Torrealdai euskaltzain urgazleari eskatu zaiola jakinarazi du Euskaltzainburuak, eta onartu duela.

2.3. J. M. Larrarteren heriotza. Jose Mari Larrarte ohorezko euskaltzaina hil honen 23an zendu dela jakinarazi da. Beronen hilberri-txostena egiteko hiru urgazle-ren izenak aipatu dira.

2.4. J. Haritschelharri Manuel Lekuona saria. Urriaren 18an aurtengo Manuel Lekuona saria Jean Haritschelhar jaunari eman zaiola adierazi du Idazkariak. Hori dela eta, euskaltzainburuari zorionak eman zaizkio.

2.5. J. L. Lizundiak omenaldia Mañarian. Era berean, Jose Luis Lizundiak Mañariko herrian, bertako idazkaria izan zela eta urriaren 21ean omenaldia egin zaio. Euskaltzainek zorionak eman dizkiote.

2.6. Manuel Agud Querolen alargunaren eskerrak. Euskaltzainburuak, Manuel Agud Querol euskaltzale oraintsu zenduaren alargunaren eskutitzaren berri eman du, erakutsiriko doluagatik esker oneko hitzak esanez.

3. Hizkuntza gaiak.

3.1.1. Gipuzkoako herri izendegia (5. zerrenda) Debarroa onartzea. Andres Iñigo Onomastika batzordeburuak hartu du hitza, *mendaroar* herritar izenaz egon diren zalantzak eta lekukotasunak azalduz. Zerrenda ontzat eman da.

3.1.2. Herri-izenak: Hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera. Txosten hau A. Iñigok aurkeztu eta azaldu du, toponimo batzuen forma eta grafietan gertatzen diren arazoak sailkatu eta era arautuan konpontzeko irtenbideak proposatuz.

Araugaia irakurri ondoren P. Goenagak *Vitoria / Gasteiz*-en kasuaz galdetu du. J.L. Lizundiak erantzun du, zenbait tokitan lehenik harturiko erabakiak gora-behera, Euskaltzaindiak bere barrurako behintzat beti arau berberak eduki behar dituela azalduz.

Oharrak azaroaren 22rako aurkeztu beharko dira.

3.2. Hiztegi Batua: b-berriz zerrenda. P. Salabururen ezin etorriagatik, Euskaltzaindiko idazkariaren zuzendaritzapean *b-berriz* zerrendari egin zaizkion oharrak aztertzen eta erabakitzen segitu da, eta *baratxuri*-tik basal-erainoko oharrak ikusi eta eztabaidatuta, zerrendatxo horretako hitz guztiak erabaki dira.

4. Ohorezko euskaltzainak izendatzeko irizpenak. Zuzendaritzak txosten bat aurkeztu du, euskaltzain osoen artean banatua, ohorezko euskaltzainak izendatzeko kasuistika eta irizpideak finkatzeko asmoz. Txosten hori J. L. Lizundiak irakurri eta azaldu du. Idazkia irakurri eta komentatu ondoren, ohoratzekoei ea izendapena onartuko duten ala ez aurretik galdetzea komeni ote den eztabaidatu da. I. Sarasolaren ustez ez litzaeke ezer galdetu behar, eta Euskaltzaindiaren ustez merezimendurik aski badute, besterik gabe, izendatu beharko lirakeke, ondoren, beraiek, izendapen hori onartu edo gaitzesteko duten eskubidea ukatu gabe. Horrek, bidenabar, saihestu egingo luke kasu ezagunen batean zoritxarrez gertatu den bezala, Euskaltzaindiak euskaltzale nabarmenen bat ohorezko egin nahi izan ez duelako zurrumuru faltsua. Aurkeztu den proposamenaren arabera, ohorezko euskaltzaingaien izenak eta horien merezimenduak aurkezteko epea azaroaren 22ra artekoa izanen da.

5. Esku artekoak.

5.1. Literatura sarietarako epaimahaikoak.

Literatura Ikerketa azpibatzordearen proposamenez, Zuzendaritzak ondoko pertsonak aurkeztu ditu 2004ko deialdiko literatura sarien epaimahaiko izateko:

Txomin Agirre eleberrirako: Maria Jose Olaziregi, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

Toribio Alzaga teatro sarirako: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

Felipe Arrese Beitia poesia sarirako: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.

Mikel Zarate saio sarirako: Aurelia Arkotxa, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.
Berretsi egin dira izendapen hauek.

5.2. VIII. Jagon jardunaldiak.

A. Urrutia Jagon Sailburuak *Eliza eta euskara Gasteizko elizbarrutian* izenpean 2004.eko azaroaren 26an Gasteizen, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkartzan egiteko diren VIII. Jagon Jardunaldien programa aurkeztu du, euskaltzain osoen artean banatua.

5.3. Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena. Aurtengo urriaren 21ean Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan sinatu zen dokumentuaren berri eman da. Euskaltzainei horren kopia bana eman zaie.

5.4. Zuberoako antzerkigileen protesta-gutuna. Bilduen artean, Jean Louis Davant eta Txomin Peillen euskaltzainek eta Junes Casenave urgazleak sinaturiko idazki bat banatu du Txomin Peillen euskaltzainak, Literatura Ikerketa batzordeak prestatuturiko hiztegian zuberotar herri-teatroaren ahozko literaturaren barruan sailkatu eta kokatu dela salatzen duena. Beren protestan, sinatzaileek aski garbi uzten dute, pastoralak, zati kantatuak badituzte ere, oinarritzat teatro-lan idatziak direla, eta alde zuzenetik zehazki prestatuak, eta hortaz, «ahozkoak» barik, «herri-teatro», «teatro tradizional» edo «Erdi Arotikako teatro»tzat jo behar direla, behar den seriotasunaz jokatzeko. Hortaz, Zuberoako teatro mota honi zor zaion errespetua izatea eskatzen dute.

Ordu bietan amaitu da bilkura.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria